

## **IÑURRITZA PLAZAKO UDAL APARKALEKUETAN JABARI PUBLIKOKO APARKALEKU-PARTZELEN EMAKIDAK EGITEKO BALDINTZEN AGIRIA**

2025eko ekainaren 23ko akordioaren bidez, Zarauzko Udalak hasiera eman dio Iñurritza plazako -2 sotoko solairuan 89 aparkaleku-plazaren emakida administratiboa egiteko prozedurari.

Emakidak lehiaketa bidez adjudikatuko dira.

Arau hauen helburua da adjudikazio-prozesua arautzea, plazen prezioa eta gastu erantsiak finkatzea eta emakidadunen eskubideak eta betebeharrak ezartzea.

Erabiltzaile bakoitzari jabari publikoko emakidak eratuz eta emanez baimenduko da udal aparkaleku-plazen erabilera.

Arau hauen bidez adjudikatuko eta arautuko diren aparkaleku-plazak honako hauek dira:

Ibilgailuentzako 89 plaza, -2 sotoan (plano erantsi da). Horietatik hiru plaza (1, 5 eta 82 eta 105 zenbakidunak) Foru Aldundiak ofizialki onartutako desgaitasuna duten pertsonentzat dira, baremo hauen arabera: gutxienez % 25eko desgaitasuna, mugikortasun murriztuaren baremoan; edo, hala badagokio, 7 puntu edo gehiago, A, B edo C letra, garraio publiko kolektiboa erabiltzeko zailtasunak zehazteko baremoan.

### **KLAUSULAK**

#### **LEHENA. Araubide juridikoa**

Jabari publikoko emakida bakoitza eratu eta emateak izaera juridiko-administratiboa du, eta honako hauek arautuko dute:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki-araubidearen oinarriak arautzekoa; eta, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, toki-araubideko gaietan indarrean dauden legezko xedapenen testu bateratua onartzekoa.
- 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Administrazio Publikoen Ondarearena.
- 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, toki erakundeen ondasunen araudia onesten duena.
- Azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuena.
- Kode zibila.
- Baldintzen agiri honetan xedatutakoa.
- Beste edozein arau aplikagarri.

#### **BIGARRENA. Jabari publikoaren emakidaren iraupena.**

1. Aparkaleku-plaza horiek jabari publikoko emakida-erregimenean lagatzeko epea berrogeita hamar (50) urtekoa izango da.
2. Plazak adjudikatzeko akordioarekin batera hasiko da iraupena kontatzen. Data hori formalki jakinaraziko zaie aparkaleku-plazen emakiden adjudikaziodunei, eta adjudikazio-kontratuan ere jasoko da.

## **HIRUGARRENA. Baldintza orokorrak eta adjudikaziorako lehentasuna**

1. Zarauzko udalerriko mugikortasunerako beharrezkoa da udal-baliabideak ahalik eta ondoen kudeatzea; helburua da interes orokorrari erantzutea, herritarren beharrak beteko dituzten irizpide objektiboen arabera. Testuinguru horretan, baliabideak aztertu eta irizpide arrazionalak ezarri behar dira Zarauzko udalerriak dituen aparkaleku-plazak emakidan adjudikatzeko orduan. Hori dela eta, mugikortasun-irizpideetan oinarritutako proposamen teknikoak kontuan hartuta, lehentasun-taldeak ezarriko dira eskainitako jabari publikoko plazen emakidak adjudikatzerakoan.

2. Emakida lortu ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Turismo motako ibilgailuren baten titularra izatea (M1 kategoria).

Finantza-errentamenduko araubideko ibilgailuak ere onartuko dira (*leasing* edo *renting*), edo enpresak eskatzailearen erabilera bakar eta eskusiborako lagatako ibilgailuak.

- b) Ez izatea zorrik Udal edo Foru Ogasunarekin, ez eta Gizarte Segurantzarekin ere.
- c) Ibilgailuentzako nahitaezko erantzukizun zibileko aseguruia beti indarrean izatea, eta Ibilgailuen Azterketa Teknikoa eguneratuta.
- d) Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazetara aurkezten diren pertsonen kasuan, Foru Aldundiak ofizialki aitortutako desgaitasuna izan beharko dute, baremo hauen arabera: gutxienez % 25eko desgaitasuna, mugikortasun murriztuaren baremoan; edo, hala badagokio, 7 puntu edo gehiago, A, B edo C letra, garraio publiko kolektiboa erabiltzeko zailtasunak zehazteko baremoan.
- e) Plaza bakarra adjudikatu ahal izango da pertsona bakoitzeko.
- f) Emakida pertsona bakarrari adjudikatuko zaio. Ezin da emakida partekaturik egin, eta emakidaren gainean ezin da beste eskubide errealik ezarri, adibidez, usufruktu-eskubidea edo beste batzuk. Hala ere, emakidaren titulartasuna partekatu ahal izango da ezkontzaren irabazpidezko erregimenean.
- g) Emakidak emakidaren xede den ibilgailuaren titularrari, jabeari edo erabiltzaileari emango zaizkio. Ibilgailu bat beste batekin ordezkatzuz gero, erabiltzaileak ibilgailu horri buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko du aldez aurretik, klausula honetan eskatutakoaren arabera. Baldintzak ez betetzeak emakida azkentzea ekarriko du.

## **LAUGARRENA. Publizitatea eta informazioa**

1. Zarauzko Udalak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratuko ditu deialdia, eskabideak aurkezteko epea eta baldintzak. Era berean, Udalaren webgunean ([www.zarautz.eus](http://www.zarautz.eus)) eta udalerrian zabaltzen diren egunkarietako herri-kroniketan iragarriko da.

2. Eskabideak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da (iragarkia GAO-n argitaratzen denetik kontatzen hasita). Epe horretan deialdiari eta oinarriei buruzko informazioa emango zaie interesdunei ZARAUTZ-LUR Udal Sozietate Publikoaren egoitzan (Salegi kalea 14 behea).

## **BOSGARRENA. Adjudikaziorako lehenetasuna duten eskatzaile-taldeak**

1. Aparkaleku-plaza horien adjudikazioan jarraitu beharreko hurrenkerari dagokionez, lehenetasuneko taldeak zehaztu dira. Lehenik eta behin, I lehenetasun-taldean sartuta dauden eskabideen artean zozketa eginda adjudikatuko dira plazak. Plazaren batzuk adjudikatu gabe gelditzen badira, II lehenetasun-taldeko eskabideen artean zozketa eginda adjudikatuko dira. Eta horrela, hurrenez hurren, plaza erabilgarri guztiak adjudikatu arte.

2. Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazetan, Foru Aldundiak ofizialki aitortutako desgaitasuna dutenek bakarrik izango dute aukera, baremo hauen arabera: gutxienez % 25eko desgaitasuna, mugikortasun murriztuaren baremoan; edo, hala badagokio, 7 puntu edo gehiago, A, B edo C letra, garraio publiko kolektiboa erabiltzeko zailtasunak zehazteko baremoan.

3. Honako lehenetasun-talde hauek ezartzen dira:

I taldea:

Zarautzen erroldatuta dauden pertsonak, ibilgailu baten jabe izanik bizikidetzaren barruan jabetzako edo emakida administratiboko aparkalekurik ez dutenak, edo hirugarren klausulako 2.a) letran jasotako kasuren batean daudenak.

II taldea:

Zarautzen erroldatutako pertsonak, bizikidetzaren barruan jabetzako edo emakida administratiboko aparkaleku-plaza bakarra eduki eta bi ibilgailu edo gehiagoren jabe badira edo ibilgailu horiek hirugarren klausulako 2.a) letran jasotako kasuren batean badaude.

III taldea:

Zarautzen kokatutako jarduera komertzial, profesional edo industrial baten titularrak.

IV taldea:

Zarauzko udalerrian kokatutako etxebizitzaren jabeak.

V taldea:

Gainerako interesdunak.

### **SEIGARRENA.- Eskaerak aurkeztea**

1. Pertsona bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu ahal izango du. Baldin eta emakida kontratatzeke aukera lortzen badu, baina Zarauzko udal-mugapean beste emakida baten titularra bada edo deialdi hau tramitatu bitartean Zarauzko udalerrian dagoen beste aparkaleku bat emakida administratibo bidez erabiltzeko eskubidea eskuratzen badu, uko egin beharko dio plaza horietako bati, kontratua formalizatu baino lehen.
2. Ezin izango da zirkulazio-baimen bera erabili emakida-eskubidea pertsona desberdinen izenean lortzeko. Aurkeztu beharreko dokumentazioa oker erabiltzen bada, dokumentazio horri lotutako eskaera guztiak baliogabetu egingo dira.
3. Aparkaleku-plazak adjudikatzeko prozedura hau lehiaketa bidezko prozedura bat da; beraz, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1.b) artikulua araberan, prozedurako jarduketa guztien jakinarazpenak argitaratu egin beharko dira.
4. Deialdia GAOn argitaratuko da. Era berean, Udalaren webgunean ([www.zarautz.eus](http://www.zarautz.eus)) eta udalerrian zabaltzen diren egunkarietako herri-kroniketan iragarriko da.
5. Interesdunek behar bezala betetako eskabide normalizatua aurkeztu beharko dute Zarauzko Udaleko sarrera-erregistroan; horrekin batera, erantzukizunpeko aitortpen bat aurkeztuko da, eta jarraian adieraziko diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak erantsi.
6. Udalak ofizioz egiaztatuko ditu hurrengo betekizunak; ez ordea, eskatzaileak berariaz horren aurka egiten badu. Kasu horretan, horien egiaztagirak aurkeztu beharko ditu.
  - a) Eskatzailearen identifikazio dokumentala (NAN, bizileku-txartela edo IFZ) eta, hala badagokio, Zarauzko udalerriko errolda-agiria.
  - b) Gizarte Segurantzako eta foru eta toki ogasunekiko betebeharrak egunean dituela frogatzeko agiria.
  - c) Aparkaleku-plazari atxiki nahi zaion ibilgailuaren zirkulazio-baimena (indarrean).
  - d) Ibilgailuentzako nahitaezko erantzukizun zibileko aseguruia eta Ibilgailuen Azterketa Teknikoa eguneratuta.
  - e) Jardueren kasuan, jarduera komertzial, profesional edo industrial baimentzen duen titulu administratiboa eduki beharko du.
  - f) Desgaitasuna duten pertsonentzako plaza bat eskatzen den kasuetan, desgaitasunaren balorazioa egiaztatuko da.

- g) Eskabidearekin batera, 250 euroko fidantza bat banku-kontu hauetakoren batean sartu dela egiaztatzeko agiria aurkeztuko da:

KUTXABANK ES45.2095.4408.5110.6000.0246

LABORAL KUTXA: ES86.3035.0029.6202.9090.0002

Kontzeptua: "Iñurritza plazako lehiaketa"

7. Dokumentuetan agertzen den helbideak bat etorri beharko du erroldako helbidearekin, lehentasunezko adjudikazio-taldeetan sartzeko.

Pertsona juridikoen kasuan, zirkulazio-baimena aparkalekua eskatzen duen enpresaren edo erakundearen izenean edo jarduerarekin lotutako pertsona fisiko baten izenean agertu ahal izango da; aldiz, gidabaimenak enpresarekin edo erakundearekin lan edo lanbide lotura duen pertsona fisiko baten izenean egon beharko du; harreman hori modu frogagarrian egiaztatu beharko da kasu guztietan.

8. Aurkeztutako eskabideak behar bezala beteta ez badaude edo eskatutako dokumentazioa eransten ez bada, hamar eguneko epea emango zaie interesdunei akatsa zuzen dezaten edo dokumentuak aurkez ditzaten, eta ohartaraziko zaie, hala egin ezean, eskaeran atzera egin dutela ulertuko dela, horretarako emango den ebazpenaren bidez.

9. Udalak eskubidea izango du beste edozein dokumentu-froga eskatzeko eta/edo aparkaleku-plazaren eskatzaileek emandako datuak egiazkoak direla ofizioz egiaztatzeko.

### **ZAZPIGARRENA. Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak**

1. Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta horiek egiaztatu ondoren, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak egin eta jendaurrean jarriko dira hamar egun balioduneko epean, baztertzeko arrazoiak adierazita, egokitzat jotzen diren erreklamazioak egin ahal izateko.

2. Behin-behineko zerrendak udaletxeko eta ZARAUTZ-LUR sozietateko iragarki-tauletan argitaratuko dira, baita Udalaren webgunean ere ([www.zarautz.eus](http://www.zarautz.eus)).

Zozketarako onartutako eskabideen behin-behineko zerrenda lehentasun-taldeak bereizita egingo da.

### **ZORTZIGARRENA. Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak**

1. Emandako epean alegaziorik edo erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrendak behin betiko bihurtuko dira.

2. Egin beharreko zuzenketak egin ondoren, Udalak, Alkatetzaren ebazpen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onartuko ditu.

3. Behin-behineko zerrendak udaletxeko eta ZARAUTZ-LUR sozietateko iragarki-tauletan argitaratuko dira, baita Udalaren webgunean ere ([www.zarautz.eus](http://www.zarautz.eus)).

4. Behin betiko zerrendak onartzeko erabakiaren aurka, errekurtsio administratiboa jarri ahal izango da, eta, hala badagokio, baita administrazioarekiko auzi-errekurtsioa ere, argitalpen eta iragarki horietan adierazitako moduan eta epeetan.

## **BEDERATZIGARRENA. Adjudikazioa**

1. Plazak adjudikatzeko, zozketa publikoa egingo da.

Eskatzaileek bosgarren klausulako hirugarren atalean ezarritako taldeen hurrenkera errespetatuz aukeratuko dute plaza. Lehenik eta behin, "I" lehentasun-taldean jasotako eskabide guztiak zozketatuko dira. Plaza hutsik geratzen bada, "II" taldeko eskabideak zozketatuko dira, eta horrela, hurrenez hurren, plaza guztiak adjudikatu arte.

2. Zozketa ekitaldi publikoan egingo da. Zozketa egiteko eguna, ordua eta lekua udaletxeko eta ZARAUTZ-LUREko iragarki-taulan argitaratuko dira, baita Udalaren web orrian ere.

Zozketa egin eta hurrengo egunetan, adjudikatutako plazen zerrenda argitaratuko da, zozketaren emaitzen arabera ordenatuta.

3. Pertsona batek plaza baten adjudikazio-eskubidea lortzen badu eta, aldi berean, Zarauzko udal mugapeko beste kokapen batean aparkaleku baten emakidaren titularra bada edo horretarako eskubidea lortzen badu, zozketaren emaitza argitaratu eta hiru egun balioduneko epean jakinarazi beharko du zein plazari egiten dion uko. Bestela, eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

4. Udalak, irizpide objektibo eta egiaztatuetan oinarrituta, ikusten badu pertsona bakoitzeko plaza bat adjudikatzeko printzipioa urratu dela edo arau hauetako bat hautsi dela, adjudikazio horiek baliogabetzat jo ahal izango ditu.

5. Adjudikatu beharreko plazak zehaztea:

Hauek dira eskuragarri dauden plazak:

Arau hauen arabera desgaitasun egiaztatua duten pertsonen zuzendutako plazak:

1, 5 eta 82 zenbakidun plazak

Gainerako plazak:

2tik 52ra bitarteko plazak (5a izan ezik); 60tik 68ra; 78tik 91ra (82a izan ezik); eta 110etik 123ra.

Plazen adjudikazio zehatza honela egingo da:

a) Lehenik eta behin, desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazak, zozketa bidez.

- b) Bai desgaitasuna duten pertsonentzako plazen eskaerek, bai gainerako eskaerek eskura dauden plazen gaineko lehentasun-hurrenkera bat adieraziko dute. Eskaera-orrrian lehentasun-hurrenkera hori adieraziko da (gehienez 48).

Baldin eskaera batean lehentasun-hurrenkera adierazterakoan plaza-zenbakiren bat errepikatzen bada, lehenengo adierazitakoa hartuko da kontuan, eta hurrengoak baliogabetu egingo dira.

Baldin lehentasun-hurrenkeran plaza bat edo batzuk adierazi gabe geratzen badira, horiek zerrendaren bukaeran sartuko dira, korrelatiboki goraka ordenatuta.

- c) Zozketak zehaztuko du libre dauden plazak aukeratzeko lehentasun-hurrenkera. Aukeratzeko 1 zenbakia lortzen duen eskaerari bere lehentasun-hurrenkeran berak aukeratutako lehenengo aparkalekua adjudikatuko zaio. Zozketan 2 zenbakia duen eskaerari, libre gelditu diren plazen artean aukeratu duen lehenengo plaza adjudikatuko zaio, eta horrela hurrenez hurren, eskainitako plazak agortu arte.

Eskaeretan adierazitako plazak beste pertsona batzuek aukeratu badituzte, gainerako eskatzaileek libre geratu diren beste plazen artean aukeratu ahal izango dute, zozketatik ateratako lehentasun-hurrenkeraren arabera.

#### **HAMARGARRENA. Emakida kontratuaren prezioa eta formalizazioa**

1. Jabari publikoko aparkaleku-plaza bakoitzaren emakida bidezko eskualdatze-prezioa honako hau izango da: 20.000 euro.

Ezarritako prezioei ondare-eskualdaketen gaineko zerga aplikatuko zaie (edo kontratua formalizatzen den unean aplikatzekoa den zerga), zeina Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuan deklaratu baita.

2. Adjudikaziodunek emakida formalizatzeko kontratua sinatuko dute Udalarekin, ezarritako gehieneko epean. Aurretik, plazaren zenbateko osoaren konturako ordainketa gisa jarritako zenbatekoaren ordainketaren egiaztatzea aurkeztuko dute.

3. Kontratua formalizatzeak eskubidea emango dio adjudikaziodunari aparkaleku-plaza emakida administratiboaren araubidean erabiltzeko.

4. Kontratuak formalizatu ondoren, jarritako fidantza itzuli egingo zaie adjudikaziodun izan ez diren pertsoneri, salbu eta arau hauetan aurreikusitako kausaren batengatik zigortzen badituzte.

Kontratua formalizatzen duten adjudikaziodunei fidantza atxiki egingo zaie. Azkenean, adjudikazioaren azken prezioan sartuko da.

#### **HAMAIKAGARRENA. Emakidaren formalizazioa**

Oinarri hauetan eskaintako aparkaleku-plaza bakoitzaren gainean emandako jabari publikoko emakidak agiri administratiboan formalizatuko dira, eta Jabetza Erregistroan inskribatu ahal izango dira.

#### **HAMABIGARRENA. Itxarote-zerrenda**

1. Bederatzigarren klausulan aurreikusitako jarduketak gauzatu ondoren arau hauetan ezarritako prozeduraren arabera adjudikaziorako eskubiderik ez duten eskaerak geratzen badira, itxarote-zerrenda bat egingo da lehentasun-hurrenkera batekin. Behin betiko zerrendetan onartu ziren baina zozketan plaza bat lortzeko eskubiderik lortu ez zuten pertsonak egongo dira zerrenda horretan.

2. Itxarote-zerrendak osatzeko, arau hauetako bosgarren baldintzaren hirugarren atalean ezarritako lehentasun-taldeen arabeko hurrenkera errespetatuko da.

Adjudikaziodunek plazari uko egiten badiote edo arau hauek ez betetzeagatik Udalak adjudikazioak baliogabetzen baditu, itxarote-zerrenda horietako hurrenkera erabiliko da aipatutako plaza horiek adjudikatzeko.

3. Etorbizunean jasoko diren eskabideak zozketatik ateratzen den zerrendaren ondorengo zerrendetan jasoko dira, eskaera-dataren arabeko hurrenkera kronologikoan.

4. Behin betiko itxarote-zerrendak indarrean eta etengabe eguneratuta egongo dira emakidatituluaren indarraldi osoan.

5. Itxarote-zerrendetan dauden pertsonak interesduntzat hartuko dira, eta, beraz, ikusten badute titularrek edo zerrendetako kideek ez dituztela betetzen Udalak eskatutako betekizunak, baldintzak edo betebeharrak, orduan, salaketak egiteko eskubidea izango dute, bai zerrendetan aldaketak eskatzeko, bai eraturako eskubideak iraungitzeko.

6. Desgaitasunen bat duten pertsonen plazetarako eskabideek, plaza horiek emateko eskubiderik lortu ez badute, berariazko zerrenda bat osatuko dute plaza horietarako.

#### **HAMAHIRUGARRENA. Soberako plazak**

Adjudikazio-prozesua amaitu ondoren, adjudikatu gabeko plazak geratzen badira eta itxarote-zerrendan eskatzailerik ez badago, Udalak plaza librean erabilera adjudikatzeko beste ebazpen bat eman ahal izango du, dagokion prozesuan zehaztuko diren baldintzetan.

#### **HAMALAUGARRENA. Adjudikaziodunen eskubideak eta betebeharrak**

1. Adjudikaziodunak etengabe eta modu iraunkorrean erabili beharko du plaza, eta adierazitako ibilgailuarekin soilik. Hala ere, familia-unitateko beste kide batzuek ere erabili ahal izango dute beste ibilgailu batekin. Aldez aurretik, ibilgailua zein den adierazi beharko da, eta ibilgailu horrek ere oinarrietan eskatzen diren baldintza guztiak bete beharko ditu.

Ezin izango da okupaziorik egin beste ibilgailu edo objektu batzuekin.

2. Ezin izango dira inola ere alokatu, ezta hirugarrenei laga ere.

3. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari dagokion ordainketa adjudikaziodunaren kontura izango da.

4. Udalak, edo, hala badagokio, kudeaketa eskuordetzen duen erakundeak, ordainketa-betebeharrak finkatuko ditu, bai mantenimendu zerbitzuen eta kostuen arabera aparkaleku-plaza bakoitzak kanon bat ordainduz, bai gastu horiei aurre egiteko dagokion kuota ordainduz.

Gastuen artean, erreserba-funts bat sartuko da – urteko aurrekontuaren % 15en baliokidea – instalazioak mantentzeko, konpontzeko edo ordeztzeko soilik erabiliko dena.

5. Adjudikaziodunek behar bezala erabili, zaindu eta mantendu beharko dituzte eraikuntza eta instalazioak, eta funtzionamendu, garbiketa, apaindura eta segurtasun egoera ezin hobe eta etengabe, eta ezin izango dute instalazioaren elementurik aldatu, ezta instalazio finkorik edo aldi baterakorik ezarri ere.

6. Emakidadunek Udalari jakinarazi beharko diote aparkaleku-plazaren erabileran gertatzen den edozein anomalia eta, oro har, gainerako erabiltzaileen erabilera baketsua hondatzen duen edozein irregulartasun. Zarauzko Udalak, gertakariak egiaztatu ondoren, prozedura bat ireki ahal izango du emakida atzera botatzea bidezkoa den ebazteko. Hori guztia, kalteak eragin dituen pertsonari erreklamatu ahal zaion erantzukizun zibilari utzi gabe.

### **HAMABOSGARRENA. Emakida eskuz aldatzeko aukera**

1. Baja, ordezkapen edo eskualdatze eskaerak Udalean aurkeztu beharko dira, adjudikazio berriak itxarote-zerrendako erregelen eta lehentasun-eskubidearen arabera egiaztatzeko.

2. Eskualdatzearen prezioa hasierako adjudikazio-prezioa izango da, zergarik gabe, eskualdatze-eskaera egin arte igarotako urte eta hilabete osoen EAEko KPI metatua gehituta, eta proportzionalki murriztuta jada aprobetxatutako urte eta hilabete osoen arabera.

Prezio eguneratuari eskualdatzeko unean aplikatu beharreko tributuak aplikatuko zaizkio.

3. Hala ere, titularrek zuzenean eta itxarote-zerrendetara joan gabe eskualdatu ahal izango diete plaza senide hauei, betiere horiek plaza bat lortzeko ezarritako baldintzak betetzen badituzte:

- Eskualdatze-eskaera egiten den egunean gutxienez urtebeteko bizikidetza egiaztatzen duen edozein senide.
- Legezko banantze edo dibortzio kasuetan, emakidari lotutako etxebizitzan dagoen ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen alde.

– Heriotza kasuetan, nahitaezko edozein oinordekoren alde.

4. Aparkaleku-plazaren eskualdaketa ezin izango da inola ere lotu etxebizitza baten edo beste higiezin baten salmentarekin.

5. Desgaitasunerako egokitutako plaza bat denean, eskuratzailleak kasu horri aplikatu beharreko apartatuetan xedatutakoa bete beharko du.

6. Eskualdaketa guztiek udalaren alde aurreko adostasuna izan beharko dute baliozkoak izan daitezen.

### **HAMASEIGARRENA. Emakida iraingitzea**

1. Jabari publikoko emakidak aparkalekua eskualdatzeagatik, erreskateagatik edo plazaren gaineko emakida baliogabetzeagatik iraingiko dira, eta, nolana ere, berrogeita hamar (50) urteko epea amaitzen den egunean, kontratua sinatzen denetik zenbatzen hasita.

2. Berrogeita hamar urte igaro ondoren, aparkalekuko instalazioak Zarauzko Udalera itzuliko dira automatikoki, kargarik gabe.

3. Emakida iraingi egingo da, halaber, Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 100. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, eta, gainera, arrazoi hauengatik:

a) Emakida jasotzeko bete beharreko baldintzetako edozein desagertu edo iraingitzea. Emakidaduna behartuta egongo da egoera hori Zarauzko Udalari jakinaraztera; dena den, Udalak edo hura eskuordetzen duen erakundeak ofizioz hasi ditzake emakida-eskubidea iraingitzeko tramiteak, inplikaturako pertsonari entzun ondoren.

b) Aparkaleku-plaza emandako xederako ez erabiltzeagatik edo funtsezko erabilera-baldintzak eta erabiltzailearen betebeharrak urratzeagatik, arau hauetan araututakoaren arabera.

c) Hamalagarren baldintzan adierazitako betebeharrak ekonomikoak ez ordaintzea, ordainketa epe barruan egiteko eskatu ondoren ere egoera horrek irauten duenean.

d) Behar bezala justifikatutako interes publikoko ezusteko zirkunstantzietan, Zarauzko Udalak kontratua bertan behera utzi ahal izango du, iraingi baino lehen, indarrean dagoen legeriaren arabera kontratua likidatu ondoren.

4. Aurreikusitako kasuengatik plaza berreskuratu ondoren, Zarauzko Udalak beste adjudikazio bat egin ahal izango du, ezarriko diren prozeduraren bidez.

5. Desgaitasunerako egokitutako plaza baten titularra hiltzen bada edo plaza hori erabiltzeko beharrezko baldintzak galtzen baditu, Udalak plaza berreskuratuko du. Horretarako,

hasierako prezio garbiaren zati proportzionala itzuliko dio emakidaren titularrari edo, hala badagokio, haren oinordekoei.

#### **HAMAZAZPIGARRENA. Udalaren eskumenak**

1. Zarauzko Udalak eskumena du arau hauetako klausulak interpretatzeko eta horiek betetzeak sortzen dituen zalantzak argitzeko. Bere eskumenak erabiliz hartzen dituen erabakiak berehala betetzekoak izango dira.

2. Zarauzko Udalak, interes publikokotzat jotzen badu, aparkalekua handitzea edo aparkalekuen erabilera aldatzea onartu ahal izango du, baina aldaketa horiek ez dute inolako kalte-ordainik ekarriko.

3. Instalazioen mantentze-lanak eta obra posibleak udalaren eskumenekoak izango dira, betiere garaje osoari zerbitzua ematen badiote.

Ibilgailuak modu indibidualean elektrizitatez kargatzeko behar den instalazioak (edo aprobetxamendu indibidualizatuko beste instalazio batzuk) Udalaren baimena beharko du aldeztu aurretik, eta interesdunak ordainduko ditu.

4. Higieztina baldintza egokietan mantentzeko obrak edo konponketak egin behar badira, erabiltzaileek onartu egin beharko dituzte ematen zaizkien jarraibideak, eta, beharrezkoa izanez gero, emakidaren erabilera eten beharko dute.

5. Alkatetzak hartuko ditu baldintza-agiri honen klausulak interpretatzeko eta horien betetzeak sortzen dituen zalantzak ebazteko erabakiak; dena den, tokiko gobernu batzarrari delegatu diezaiotke eskumena.

#### **HEMEZORTZIGARRENA. Kudeaketa**

1. Adjudikatzeko prozedura Udalaren eskumena da. ZARAUTZ-LUR Udal Sozietateak Udalarari lagundu egingo dio informazioa, jendearentzako arreta eta aholkularitza ematen prozesuan zehar.

2. Eskaintako plazak adjudikatzeko prozesua bukatu ondoren, ZARAUTZ-LUR Udal Sozietateari emango zaio Inurritza plazako udal aparkalekuak kudeatzeko eta mantentzeko ardura.

3. Arau hauetan Udalarari buruz egiten diren aipamenak Udalarari eta ZARAUTZ-LUR Udal Sozietateari buruzkoak direla ulertu behar da, Udalaren erabaki-organoen ahalmen eskusibo eta delegatu ezinezko egintza administratiboetan izan ezik.